

## **ERRETERIA / Irakurketa kluba eta hitzaldi tailerrak, Bularretik Mintzora egitasmoaren eskutik**

Bularretik Mintzora egitasmoari jarraipena emateko hainbat ekimen antolatu ditu Errenteriako Haurren Liburutegiak hasi berria den ikasturteari begira. Leonor Garcia Artxiboko eta Liburutegiko Arduradunak eta Mari Jose Pascual liburuzainak eman dituzte ekimen horien gaineko xehetasunak. Galtzagorri elkartearen eskutik iaz abiatutako Bularretik Mintzora proiektuari jarraipena emateko, irakurketa klubak eta hitzaldi tailerrak antolatu dituzte. Irakurketa klubak hilean behin egingo dituzte eta bertan haurrak eta gurasoak elkarrekin hartuko dute parte, "irakurketa une txiki batzuk partekatze" azaldu du Pascualek. Tarte horien gidaritza, Galtzagorri elkarteak profesionalek egingo dute eta ekimenaren helburua berriz, txiki txikitatik praktika onen bidez irakurketa sustatzea dela azaldu dute Garciak eta Pascualek.

Lehenengo hiruhileakoan irakurketa kluba 6-8 urte arteko haurrei zuzenduta egongo da eta 2014ko urtarriletik maitzera bitartean, berriz, 3 eta 5 urte arteko haurrei. Jarduera euskaraz egingo dutela zehaztu dute bestalde. 6 eta 8 urte arteko haurrei eta horien gurasoei begira antolatu dituzten irakurketa klubak urriaren 17an, azaroaren 14ean eta abenduaren 19an egingo dituzte Lur Kortaren eskutik 18:00etatik aurrera.

Hitzaldi tailerrak Bularretik Mintzora egitasmoaren "formazio alderdiari" erantzuten diola zehaztu dute antolatzaileek: "Familia eremuan edota eskola zein laneko giroan irakurketa sustatu nahi duten pertsona guztiei". Pello Añorga, Yolanda Arrieta eta Juan Carlos Alonso profesionalak izango dira tailerretako gidariak. Halaber, gurasoek tailerra egiten duten bitartean haurrentzat ipuin kontalaria izango dela jakinarazi dute liburutegiko ordezkariak.

### **Formaziorako apustu serioa**

Pello Añorgak gidatuko du lehen tailerra. Elkar entzuteko gunea sortzen etxean: liburuak eta kontuak lagun izenburupean bi saiotan egingo dute urriaren 2an eta urriaren 9an; Yolanda Arrietak emango du bigarren tailerra, Zer egin liburuekin. Kontu kontari. Azken hori ere bi saiotan egingo dute, azaroaren 12an eta 19an; Juan Carlos Alonsok emango du azken tailerra, Emozio Hezkuntza eta Haur Literatura. Saio bakarrean egingo du 2014ko martxoaren 27an. Hitzaldi tailerrak, irakurketa kluba bezala euskaraz egiten dituzte eta parte hartzea doakoa da. Orduetegiari dagokionean 17:30etik 19:30era izango dira tailerrak Xenpelar Etxeko lehen solairuan.

Bularretik Mintzora egitasmoaren bidez "formaziorako apustu serioa" egin dutela nabarmendu dute azkenik Pascual eta Garciak, "praktikoa batez ere". Emaitezkin ere pozik daudela esan dute biek eta haur eta guraso guztiak animatu dituzte ekimenetan parte hartzera. Informazio gehiago hemen aurki dezakete interesdunek.